

DESGAITASUNA DUTEN PERTSONENTZAKO EGOITZA ZENTROA

Garrantzitsua

Adi: hemen Gizarte Zerbitzuei buruzko informazioa baino ez duzu aurkituko.

Hau da, beste baliabide batzuei buruzko informazioa bilatzen baduzu, hala nola Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari (DSBE) buruzkoa, familientzako kontziliazio-laguntzei buruzkoa, adingabeak eskolatzeari buruzkoa edo osasun-zerbitzuetarako sarbideari buruzkoa, Hezkuntza, Familia eta Haurtzaroa, Osakidetza edo Lanbideren atarietara jo behar duzu informazioa jasotzeko.

Webgune honetan jasotzen diren prestazioez gain, udal bakoitzak eta aldundi bakoitzak beste zerbitzu eta prestazio batzuk izan ditzakete Gizarte Zerbitzuen arloan.

Desgaitasuna duen 18+ pertsona > Egoitza edo etxebizitza bat laguntzarekin eskuratzea

Fitxa osoa kontsultatzen ari zara. [Hemen informazio laburtua.](#)

Zertan datza zerbitzu hau?

Desgaitasunen bat duten eta mendekotasun-egoeran dauden pertsonentzako ohiko etxebizitza gisa erabiliko diren egoitza-zentroak, beren beharrak beren etxebizitza pertsonalean edo familiarrean behar bezala ase ezin dituztenak ([2.4.2 fitxa](#)).Egoitza horiek laguntza zabala eta indibidualizatua bermatzen dute, pertsonaren behar aldakorretara egokitzen dena. Horretarako, askotariko profesionalak ditu ongizate fisiko eta psikologikora bideratutako arreta integralerako.Egoitza-zentroetan honako zerbitzu hauek sartzan dira: informazioa, jarraipena, bitartekaritza, laguntza, arreta pertsonala, esku-hartze estimulatzailea edo errehabilitatzailea (funtzio kognitiboetan esku hartzea; trebetasun fisiko eta funtzionalak garatzea), esku-hartze hezitzailea eta/edo okupazionala, eta esku-hartze psikosoziala (emozioei eustea, arriskua murriztea eta funtzio psikoafektiboetan esku hartzea).Otordu zerbitzua (gosaria, bazkaria, askaria, afaria), garbitegia eta garbiketa ere sartzan dira. Osasun-prestazioei dagokienez, erizaintzako arreta, arreta medikoa eta errehabilitazioa barne hartzen dituzte.

Nork jaso dezake zerbitzu hori?

18 eta 64 urte bitarteko pertsonak, **desgaitasuna** eta **mendekotasuna onartua** dutenak.

Zein baldintza zehatz bete behar dira zerbitzua eskatzeko?

- 18 eta 64 urte bitartean. Salbuespen gisa, adingabeak ere sartu ahal izango dira:
 - bere beharrek edo gizarte- eta familia-egoeraren larritasunak hala aholkatzen dutenean;
 - babesgabetasun-arrisku larriko kasuetan, adingabeen babes-zentroetan arreta egokia

bermatu ezin dutenean.

- Eskabidea aurkezteko unean Lurralde Historikoko udalerriren batean erroldatuta egotea.
- I., II. edo III. graduako mendekotasun balorazioa
- % 33ko edo hortik gorako desgaitasun-maila onartzea.
- Aldizkako laguntza, mugatua, zabala edo orokorra behar izatea.

Zenbat balio du zerbitzuak?

Koordainketaren menpe dagoen zerbitzua da, hau da, onuradunak zerbitzuaren zati bat ordaintzen du, egoera ekonomikoaren eta baliabidea erabiltzeko modalitatearen arabera.

Nori dagokio zerbitzu hori ematea?

Foru Aldundien ardura da zerbitzua ematea.

Non eska dezaket zerbitzua?

Zure auzo, udalerrri edo eskualdeko **Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan** eska dezakezu informazioa.

Zerbitzu honetan interesatuta bazaude edo gehiago jakin nahi baduzu, Gizarte Zerbitzuetan lan egiten duten pertsonekin hitz egin dezakezu. Nola funtzionatzen duen eta laguntza hori nola balia dezakezun azalduko dizute. Esaiguzu zure udalerrria eta harremanetarako lekuak eta datuak adieraziko dizkizugu.

Zer arauk ezartzen du zerbitzu hori?

Zorroaren jatorrizko fitxarako sarbidea

Informazio gehiago:

- [Desgaitasuna duten pertsonentzako egoitza zentroa Araban](#)
- [Desgaitasuna duten pertsonentzako egoitza zentroa Bizkaian](#)
- [Desgaitasuna duten pertsonentzako egoitza zentroa Gipuzkoan](#)

[Fitxa laburrera itzuli](#)